

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5227

EBAZPENA, 2017ko urriaren 25ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioetarako laguntzak ematen baitira larrialdietarako laguntzetarako eta ekintza humanitarioetarako finantzaketa-lerro iraunkorretik, 2017rako garapenerako lankidetzaren kargura.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak (otsailaren 27ko EHAA, 41. zk.) ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen ditu, garapenerako lankidetzaren kargurakoak, eta bi jarduera-mota bereizten.

Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira, urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabalagoan; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez (2017ko maiatzaren 25eko EHAA, 78. zk.), 2017rako garapenerako lankidetzaren kargura, ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egin zen.

Ebazpen horren 5. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskabideak baloratu eta eskabide horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2017ko irailaren 13ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntza esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri den erakundeari, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Diru-laguntzak ukatzea II. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.–Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela esan nahiko du, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 25a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2017ko urriaren 31, asteartea

I. ERASKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Estatua	Emandako diru-laguntza
PRE-2017EH/0015	Mundu Bakean elkarte	Jocotan udalerrian (VIII. erregioa, Corredor Seco eskualdea) izandako lehortegatik elikagaiak lortzeko zaurgarritasunean bizi diren nekazari-familien erresilientziaren hobekuntza	Guatemala	99.494,08 €

2017ko urriaren 31, asteartea

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Estatua	Arrazoia
PRE-2017EH/0016	Mundubat fundazioa	Gazako zerrendan giza eskubideen urraketaren biktima izan diren emakume eta adingabeentzako laguntza psikosozialeko sistema komunitarioak	Palestina	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0017	Asamblea de Cooperación por la Paz	Okupatutako lurretan bizi den Palestinako populazioaren eskubideak eta duintasuna Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera babesteko ekintza humanitaria	Palestina	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0018	Emigrados sin Fronteras elkarte	Putumayo departamentuko Mocoa udalerriko lur-jausiak pairatutako gizon, emakume eta haurrentzako etxebizitzaren hobekuntza, elikagaietarako laguntza, oinarrizko osasun-asistentzia eta laguntza psikosoziala	Kolonbia	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0019	Proyde-Proega fundazioa	Libano hegoaldean eta erdialdean errefuxiatuta dauden Siriako eta Irakeko familien oinarrizko beharrezanetan laguntza ematea	Libano	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0020	Gurutze Gorria	Palestinako Ilargi Gorriak Ekialdeko Jerusalem duen larrialdi-zerbitzua bermatuta, eta Zisjordaniako eta Gazako zerrendako pazienteak lurralde batetik bestera garraiatzeko ambulanzia-sarea ziurtatuta	Palestina	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0021	Alboan fundazioa	Tatxira eta Apure muga-estatu-tako lau hezkuntza-komunitatetako haur eta nerabeentzako elikagai-segurtasuna	Venezuela	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0022	Munduko Medikuek	Osoko osasunerako arreta eta babes-eskubideak sendotuta, Chiapas estatuko Tapachula hiriko migratzaileei eta errefuxiatuei kasu egiten dieten eragile sozialei eta estatuko eragileei erantzunez	Mexiko	Funtsak agortu direla

2017ko urriaren 31, asteartea

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Estatua	Arrazoa
PRE-2017EH/0023	Acción Contra el Hambre fundazioa	Piura eskualdeko Morropón probintziako Salitral barrutiko herrietan Kostaldeko Haurra fenomenoak eragindako kalteak murrizteko ahaldun sozioekonomikoak sendotzea	Peru	Funtsak agortu direla
PRE-2017EH/0024	SODEPAZ	Ramallah gobernazioan bizi diren palestinarren osasun-zerbitzuak hobetzea	Palestina	Funtsak agortu direla
PRE-2017LL/0005	Anesvad fundazioa	Larrialdi-egoeran eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak bermatzea Tambogrande barrutiko Piura hirian	Peru	Funtsak agortu direla
PRE-2017LL/0007	España con Acnur elkarte - Acnur Euskal Batzordea	Irakeko eskualde batetik beste batera aldatu diren gizon-emakumeen oinarritzko beharrianak asetzea	Irak	Funtsak agortu direla